

Ezpalak

G O R K A B E R E Z I A R T U A

Dantzagunea proiektua abian da Arteleleku

ARTELEKU dantzaren sormenerako eta prestakuntzarako gune gisa ezarri da. Uda osoan hainbat dantza ikastaro eta tailer izango dira, sorkuntzari espazioak eta baliabideak eskaintzeko asmoz. Gipuzkoako Foru Aldundiak, Dantzas eta Ertza konpainiarekin batera eginiko proiektua da, eta sektorearen hutsuneak betetzeko hiru lan ardatz zehaztu ditu: espazioak betetzea, dantza tradizionalaren curriculum a egitea eta gazteei bekak eskaintzea.

Biarritzeko Big Festivalaren lehen edizioa aste honetan

UZTAILAREN 15EAN Biarritzen hiru eguneko musika jaialdia hasiko da, musika joera berrienak plazaratuz. Ekitaldia hiriko gune desberdinetara zabalduko da. Antolatzaileek diotenez “Biarritzeko hondartza soilik ez du, jendeak uste duen legez, eta beraz, ahalik eta modurik dibertsifikatuenean antolatu nahi izan dugu ekitaldia”. Musika jaialdi honetan parte hartuko dutenen artean, Joey Starr raperoa edo Supreme NTM hip-hop talde frantziarra daude, besteak beste. Delorean zarauztarrak eta Baionako DJ Madgic ere ez dira faltako.

Ekon taldea zentsuratu dute Iruñeko Sanferminetan

Astelehenean, hilak 13, eskaini behar zuen Ekon talde arrasatearrak kontzertua Iruñeko Sanferminetan. Joan den ostiralerako ordea, taldearen Myspace gunean (www.myspace.com/ekonnetnies) iragarri zuten UPNk eta PSNk zentsuratu egin dituztela. Arrasatearrez gain, Def Con Dos madrildarrak eta Obrint Past kataluniarrak ere Sanferminetan jo gabe geratuko dira.

• **Gari Berasaluzek Zuzeu.com webgunean, Stieg Larssonen liburuez:** «Nire inguruko guztiak gaztele-raz irakurri dituzte lehen bi liburukiak, nik neuk bezala. Akaso hemendik 20 urtera irakurri ahal izango ditugu euskaraz... Literatura unibertsala euskarara ekartzeko ekimena egundokoa da, beharrezkoa inolako dudarik gabe, baina ezinbestekoa iruditzen zait best-seller garaikideak ere euskaraz irakurri ahal izatea.

Horretarako, liburu batek zer eskaini behar duen, literatura ona zer

den, salduen morrontzan erortzeak duen arrisku larria, zer eta zergatik itzuli behar den, irakurlegoa zabaltzeko modua zein den eta abar luzea hartu beharko genuke hizpide, baina hori beste kontu bat da, mamitsu izan arren, argialetxeek liburuak itzultzeko zer-nolako laguntza jasotzen duten, ala ez duten jasotzen, eta antzekoekin batera».

• **Rafa Zulaika Baionako Euskal Museoko zuzendariaren esanak bildu ditu *Irutxuloko Hitzak*:**

Sexty Sexers talde beratarrak irailean izango du kalean disko berria. *Hello Mantra* izango du izena, eta taldearen hirugarren lan luzea izango da. Diskoa Volcom Entertainment diskoetxearekin emango dute argitara, hau da, Kaliforniako (AEB) zigilu batekin. Horri esker, Euskal Herriatik kanpo ere zabaltzeko aukera izango du Bidasoaren usaina duen rock&rollak.

L'Alakran antzerki taldearen azken lana, *Kairos, sisyphes et zombies* (Kairos, Sisifoak eta zonbiak) Avignoneko (Okzitania) jaialdian izango da aurreten. 40 ikuskizun inguru biltzen ditu urtero Avignoneko jaialdiak eta uztaile osoa irauten du. L'Alakranen antzezlanak, denboraren zentzuaz gogoeta egitera gonbidatzen du ikuslea.

Gorka Aulestia ondarroarrak 1936ko Gerran oinarritutako gertaerak eta hura galdu zutenek jasandako ondorioak bildu ditu *Estigmatizados por la guerra* (Gudak pitzatuak) liburuan. Euskaltzainak, gainera, garai hartako euskal kulturako pertsona zenbaiten oroimenetan oinarritu du literatur lana.

Amia Riouspeyrousek lehen diskoa kaleratu du: *Har Ezazu*. 25 urte ditu eta France Bleu Pays Basque irratiari antolatutako musika txapelketa irabazi izanari esker eman ahal izan du jautzia. Diskoko hitzekin Niko Etxart, Itxaro Borda, Xan Alkhat, Kattalin Indaburu eta Fred Fortek lagundu diote, eta musika Philippe Abor eta bere talde Aphasiek jarri diote.



«Badirudi San Telmo berritzeko eta berpizteko nahia dagoela. Eraikina berritzen ari direla badakit. Nik benetan esaten dut, San Telmok barrutik behar duela berpiztu. Publikoa berreskuratzea, eskaintza egokia egitea publikoari... (...) Nire aldarrikapena honakoa da: zer izan nahi duen eta nola lortuko duen pentsatu behar dute (...) Tabakalera-ko egitasmoen buruzko ideiak lehenago iritsi zaizkit berrikuntzarenak baino. Eta hori interesgarria da hausnarketa eta eztabaidarako».

Abarak

GORKA BEREZIARTUA

Iztietan barrena gauerdian

*Down in the tubestation at midnight. The Jam.
All Mod Cons diskotik (1978).*

EZ DAGO ARGI, baina antza denez, Paul Weller eta lagunek benetan gertatutako eraso arrazista bat kontatu zuten *Down in the tubestation at midnight* kantan. *All Mod Cons* diskoko bigarren singlea izan zen, eta urteekin The Jamen abestirik ezagunetarikoa bat bihurtu da; zeharkako zentsura gaindituz bihurtu ere, BBCK hasieran ez baitzuen emititu nahi izan, kanta “kezkgarria” omen.

Lehen pertsona kontatzen dizute istorioa: gizon bat Londresko metro estazioan behera doa, eta atzetik norbait oihuka, hi, txo, dirurik ba al daukag? “Lehenbizi ukabil bat sentitu nuen, gero ostikoa; haien arnasa usain nezakeen. Pub-etako eta Wormwood Scrubs-eko usaina, eta eskuin muturreko mitin gehiegirikoa”. Ustez asiarra da kontalaria. Kantaren bukaeran lurrean dago hebain-hebain eginda, etxeko giltzak kendu dizkiote, beldur da emaztearen bila joango ote diren. Gauerdia da metro estazioan.

Baten batek galdetuko dit zertarako ekartzen duan kanta zahar hau orri honetara. Londresko metroko errailatik gureetara etorri behar dut azalpen bila: Gipuzkoako egunkaririk salduenean—hitzari zentzu bikoitza bilatu nahi dionak ez du nire trabarik izango— *“Preocupación en Iztieta”* izenburudun artikulua jo nau, badira bi aste. Emakume bat bortxatzen saiatu ziren Errenteriako auzo horretan. Bai, kezkatzekoa da. Ulertzen dut titularra. Baina sartu naiz barrura eta ez, artikulua ez dit horretaz hitz egin nahi. Bestelako kontuak nabarmendu ditu kazetariak. Bizilagun bati bozgoragailua eman dio: *“Hasta hace poco tiempo, este barrio era muy tranquilo, pero desde que llegaron estos magrebies, la situación se ha complicado bastante”*. Bigun esateko, horrelako adierazpenak arrazakeria hutsa dira. Zer egiten du *El Diario Vasco* horien bozgorailu bihurtuta? Zer dela eta hitz egin du kazetariak “bizilagun kezkatu”-ekin bakarrik? Horrekin ez al ditu besteak, *“estos magrebies”* horiek, dagoeneko epaitu? Galdetzen duzu, alferrik. Hurrengo egunetan irakurri duzu pogrametik hurbil egon direla Iztieta. Ez dira, seguruen, pub ingelesetatik, eskuin muturreko mitinetatik etorri. Baina The Jamen kanta bezala, hauetako batean etorkinen bat egurtuko dute eta lurrean utziko gauerdian. Ez du asko inportako 1978 edo 2009 izatea, metroaren estazioa ala topoarena, Londres ala Errenteria. ■



Vitoria-Gasteiz

Gasteizen euskarazko
hauek ez galdu:

BLUSEN ETA NESKEN EGUNA

Uztailak 25. Hainbat ekintza egun osoan.

GASTEIZKO JAIK ANDRE MARIA ZURIAREN OMENEZ

Munduko dantzak

Oinezkoentzako esparruko 6 gunetan munduko 8 dantza konpainia ikusteko aukera. Uztailak 29, 22:00.

Gu gira kantaldia

Anitton Valverde, Gorka Knörr, Txomin Artola, Gontzal Mendibil, Iñaki Eizmendi, Urko, Niko Etxart + Hapa hapa, Mixel Ducau, Amaia Zubiria + Pascal Gaigne. Abuztuak 5, 00:00. Foru plaza.

Kontzertuak Aihotz plazan

Rafa Rueda. Abuztuak 4, 00:00.

Kerobia. Abuztuak 5, 00:00.

Zura. Abuztuak 6, 00:00.

Bertso Jazz. Abuztuak 7, 00:00.

Gatibu. Abuztuak 8, 00:00.

Bertsolariak

- **Abuztuak 5:** Andoni Egaña, Unai Iturriaga, Oihane Perrea, Asier Otamendi

Gai-jartzailea: Lierni Altuna. Aihotz plaza, 13:30.

- **Abuztuak 6:** Igor Elortza, Jon Maia, Manex Agirre, Andere Arriola Bengoa

Gai-jartzailea: Idoia Beitia. Aihotz plaza, 13:30.

- **Abuztuak 7:** Julio Soto, Xabier Silveira,

Onintza Enbeita, Iñaki Viñaspre

Gai-jartzailea: Ruben Santxex. Aihotz plaza, 13:30.

- **Abuztuak 8:** Maialen Lujanbio, Sustrai Colina, Amets Arzallus, Juan Mari Juaristi

Gai-jartzailea: Irati Mendiguren. Aihotz plaza, 13:30.

- **Abuztuak 9:** Aitor Mendiluze, Rikardo

Gonzalez de Durana, Jexux Mari Irazu, Izar

Mendiguren. Gai-jartzailea: Felipe Zelaleta.

Aihotz plaza, 13:30.

Folklore Aihotz plazan

Trinkitariek egunero, 12:30.

Egunero kontzertuak eta dantza plaza 19:30 eta 20:30

Haurrentzako giroa eta ikuskizunak

Bihurrikariak. Tximi, Mirri eta Txinbiton

Abuztuak 7, 12:30. Peñafloridako kondearen plaza.

Argotu. Debote enbete

Abuztuak 9, 12:30. Peñafloridako kondearen plaza.

Atxikistan. Eidabe.

Abuztuak 7, 18:00. Prado parkea

Kosmolariak. Begira.

Abuztuak 9, 18:00. Prado parkea.

Eta giro lasaiagoa nahi izanez gero...

Igenlekuko liburutegiak

Mendizorrotzean eta Gamarran bertan

euskarazko liburuen eskaintzarik onena!

Uztailan eta abuztuari, 15:00-20:00.

ETORRI ETA GOZATU GUREKINI!



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala